

**2/2026 TXOSTENA, 2026KO OTSAILAREN 16KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.**

XEDEA: ERABAKI-PROPOSAMENA, EAE-KO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN EREMUAN PREZIOAZ BESTELAKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK ETA BESTE IRIZPIDE KUALITATIBO OBJEKTIBO BATZUK SARTZEARI BURUZKO GOMENDIOA ONARTZEKOA.

I.- AURREKARIAK.

Kontratazio publikoa funtsezko tresna da premia kolektiboak asetzeko obrak gauzatzuz, hornidurak eskuratuz eta zerbitzuak emanez. Esparru horretan, adjudikazio-irizpideek garrantzi nagusia hartzen dute, interes publikorako eskaintza egokiena hautatzea zehazten baitute, eta berdintasun, diskriminaziorik eza, gardentasuna, proportzionaltasuna, lehia askea eta eraginkortasuna erabat errespetatuz eratu behar dira, funts publikoen erabileran administrazio ona lortzeko.

Indarrean dagoen arau-esparruak, oro har, kalitate-prezio erlaziorik onena identifikatzeko aukera ematen duten hainbat irizpideren arabera esleitzen ditu kontratuak. Zerrenda hori antolatzeko, irizpide ekonomikoak — prezioa edo kostua, bizi-zikloaren kostua barne, hala badagokio — eta kontratuaren objektuari lotutako irizpide kualitatiboak konbinatzen dira, besteak beste alderdi teknikoak, sozialak, ingurumenekoak edo berrikuntzakoak. Batez ere prezioan zentratutako ikuspegiak gainditzeko eta lehia kalitate- eta errendimendu-parametro objektiboetara bideratzeko beharrari erantzuten dio eredu horrek.

Hala ere, kontratazio-espeditenteak izapidetzearen ondoriozko esperientziak agerian uzten du oraindik ere badirela prezio irizpideari pisu ia erabakigarria ematen dioten jardunbideak prozedura kopuru esanguratsu batean, baita araudiak kalitatearen kontsiderazio indartua eskatzen duen kasuetan ere.

Praktika horiek kontratua behar bezala gauzatzeko arrisku garrantzitsuak ekar ditzakete, besteak beste, prestazioen kalitatea murriztea, gauzatzean gorabeherak agertzea eta kontratu-gatazkei lotutako zeharkako kostuak handitzea. Era berean, kontratuaren objektuari irizpide kualitatibo jakin batzuk modu zehaztugabea edo behar beste lotu gabe formulatzeak segurtasun juridikorik eza eragin dezake, benetako lehia murriztu dezake eta auziak areagotu ditzake.

Testuinguru horretan, gomendio honen helburua da kontratazio-organoei prezioaz bestelako adjudikazio-irizpideak diseinatzeko eta aplikatzeko jarraibide homogeneo eta



operatiboak ematea, haien objektibotasuna, neurgarritasuna eta egiaztagarritasuna indartuz.

Horrela, enpresaren ezaugarri orokorretan edo kontratazio-organoari kontratazio publikoa arautzen duten printzipioekin bateraezina den hautemate-marjina ematen dioten elementuetan oinarritutako konfigurazioak saihestu nahi dira. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak irailaren 15eko 143/2021 eta azaroaren 10eko 196/2023 ebazpenetan ezarritako doktrina.

II. –TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Batzorde Iraunkorreko presidentetzaren ustez, kontratazio publikorako interesgarria denez, gomendioa onartzeko erabaki-proposamenari buruzko txostena osoko bilkurari aurkeztu behar zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua arabera. Hori guztia Gobernu Kontseiluari aurkezteko, onar dezan.

III. – GOGOETA JURIDIKOAK.

Kalitate-prezio erlaziorik onena da kontratazio publikoko esleipen-sistemaren ardatza. Printzipio hori berariaz jasotzen da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 131.2 eta 145.1 artikulua. Horien arabera, esleipena eskaintza ekonomiko abantailatsuenari egin behar zaio, kalitate-prezio erlaziorik onena identifikatzea ahalbidetzen duten hainbat irizpide kontuan hartuta.

SPKLren eta 2014/24/EB Zuzentarauaren arabera, kontzeptu hori ez da mugatzen prezioen konparazio aritmetikora; aitzitik, prestazioaren kostuaren eta espero den errendimenduaren balorazio integratua eskatzen du. Horrek esan nahi du kontratazio-organoek adjudikazio-irizpideak diseinatu behar dituztela, osotara interes publikorako onuragarriena den eskaintza identifikatu ahal izateko, kontratuaren objektuari lotutako parametro objektibo, egiaztagarri eta lotuen arabera.

Ildo horretan, kalitate-prezio erlazio onena behar bezala konfiguratzeko, lehenik eta behin, ase nahi den premia publikoa eta kontratuaren xedea behar bezala definitu behar dira, SPKLren 1. eta 28. artikulua. Beraz, definizio horretatik abiatuta bakarrik hauta daitezke adjudikazio-irizpide koherenteak eta funtzionalak, prestazioaren kalitatean edo efizientzian benetan eragiten ez duten elementu osagarriak edo soilik formalak sartzea saihestuz.

Irizpide kualitatiboak balorazio automatikoko tekniken bidez edo balio-iritzien bidez antola daitezke, prestazioaren izaeraren eta ebalua daitezkeen alderdiak parametrizatzeko aukeraren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 146.2 artikulua, formulak aplikatuz soilik ebalua daitezkeen irizpideen nagusitasuna ezartzen duena, ahal den guztietan. Horri dagokionez, Gomendioak nabarmentzen du formulen

bidez ebalua daitezkeen irizpide kualitatiboak erabiltzeak lagundu egiten duela prozeduraren objektibotasuna eta gardentasuna indartzen, diskrezionalitate teknikoaren marjina murrizten eta adjudikazioaren ondorengo kontrola errazten.

Hala ere, prestazioaren konplexutasun teknikoak hala eskatzen duen kasuetan, zilegi da balio-judizioaren mendeko irizpideetara jotzea, betiere azpiirizpideak, balorazio-eskalak eta konparazio-elementuak zehaztasunez definitzen badira. Ondorioz, zehaztapan horiek ez egiteak areagotu egiten du arbitrariotasun-arriskua eta prozedura aurkaratzeko arriskua, KEAOk 196/2023 Ebazpenean ohartarazi duen bezala.

Aldi berean, adjudikazio-irizpideen haztapena funtsezko elementua da prozeduraren diseinuan, eta argi eta berariaz agertu behar du baldintza-agirietan. Horregatik, irizpide ekonomikoen eta kualitatiboen arteko pisuen banaketak kontratuaren ezaugarrietan eta identifikatutako premia publikoetan oinarritutako justifikazio funtzional bati erantzun behar dio, arrazoi objektiborik gabeko irizpideren bat de facto neutralizatzen duten konfigurazioak saihestuz.

Hainbat fasetan antolatutako prozeduretan, gutxieneko kalitate-atalaseak erabiltzeak aukera ematen du errendimendu teknikoaren maila egokia bermatzeko balorazio ekonomikoari ekin aurretik. Hala ere, atalase horiek sartzeak areagotu egiten ditu zehaztasun- eta motibazio-eskakizunak irizpide kualitatiboen formulazioan, bazterketa funtzionaleko mekanismo gisa jarduten baitute.

Orobat, irizpide sozialak eta ingurumenekoak adjudikazio-irizpide gisa sartzea guztiz bat dator indarrean dagoen arau-esparruarekin, betiere irizpide horiek kontratuaren objektuarekin lotura zuzena badute eta modu objektibo eta egiaztagarrian formulatzen badira. Irizpide horiek prestazioaren gauzatze zehatzean proiektatu behar dira, eta saihestu egin behar dira politika korporatibo orokorreari edo enpresa lizitatzaillearen ezaugarri abstraktuei buruzko balorazioak.

Irizpide horiek behar bezala konfiguratzeko, lortu nahi den helburu espezifikoak identifikatu behar da – adibidez, ingurumen-inpaktua murriztea atxikitako langileen lan-baldintzak egikaritzen edo hobetzen diren bitartean –, eta adierazle neurgarri eta kontratu-konpromiso galdagarri bihurtu behar da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrinaren arabera, zeinak eskatzen baitu irizpideak diskriminaziorik gabe aplikatzea, interes orokorreko arrazoiak justifikatzea eta proportzionatuak izatea (besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2005eko urriaren 27ko epaia, C 234/03 auzia).

Irizpide sozialei dagokienez, eta, bereziki, atxikitako langileen soldata-baldintzak hobetzeari buruzkoei dagokienez, kontuan hartu behar dira abokatu nagusiak C-210/24 auzian 2025eko uztailaren 3an aurkeztutako ondorioak, KEAOk planteatutako erabaki prejudizialaren eskaera, AESTE Mendekotasunerako Zerbitzu Enpresen Elkartek Ortuellako Udalaren aurka jarritako errekurtsuaren buruzkoa. Ondorio horien aztergaia kontratazio-irizpide bat da, sektoreko hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak gainditzen dituzten soldatak ordaintzen dituzten enpresei mesede egiten diena. Ondorio horietan adierazten da irizpide sozialak adjudikazio-irizpide gisa onar daitezkeela, baldin eta kontratua egikaritzeari lotuta badaude, arau garden eta egiaztagarriekin eratzen badira,



proportzionalki haztatzen badira eta zeharkako ondorio diskriminatzaileak saihesten badira.

Kontuan hartu behar da, halaber, RegioPost auzia (C - 115/14), 2015eko azaroaren 17koa, Renania-Palatinatuaren 2010eko abenduaren 1eko Legea EBko zuzenbidearekin bateragarria izateari buruzkoa. Lege horrek kontratazio publikoan hitzarmen kolektiboak eta gutxieneko soldata bermatzen ditu.

Bestalde, kontratuari atxikitako langileen antolamenduaren, kualifikazioaren eta esperientziaren balorazioa onargarria da, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake prestazioa behar bezala emateko orduan, SPKLren 145.2 artikulua eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 67.2.b artikulua, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren doktrinak errepikatu duen bezala (besteak beste, 972/2018, 524/2020 eta 1629/2021 Ebazpenak). Kasu horietan, ezinbestekoa da bereiztea, batetik, prozeduran sartzeko atalase gisa jarduten duten kaudimen teknikoko baldintzak, eta, bestetik, aurkeztutako eskaintzen kalitatea konparatzeko aukera ematen duten adjudikazio-irizpideak.

Adjudikazio-irizpide gisa balora daitekeen esperientziak proposatutako talde zehatzari eta haren egokitzapen funtzionalari buruzkoa izan behar du, eta saihestu egin behar da enpresaren ibilbide globalari edo lehia bidegabeki murriz dezaketen lurralde- edo erakunde-eremu espezifikoetako esperientziei buruzko erreferentzia orokorrak egitea (ikus KEAOren martxoaren 18ko 59/2019 Ebazpena).

Esleipen-irizpideak hautatzeko eta haztatzeke arrazoiak ematea funtsezko eskakizuna da egon daitezkeen errekurtsoen aurrean espedientearen gardentasuna eta defentsa bermatzeko, SPKLren 145.5, 146.2 eta 336 artikulua eta Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren doktrina finkatua, emandako puntuazioen motibazio zehatz eta estereotipatu gabea eskatzen duena (besteak beste, 437/2015 eta 539/2024 Ebazpenak). Arrazoi horiek kontratua prestatzeko fasean, balorazio-txostenetan eta esleipen-ebazpenean agertu behar dira, eskaintza bat gainerakoen aldean zergatik den hobe zehaztuta.

Era berean, prozeduraren dokumentazio egokia, ondorengo ebaluazioak eta aplikatutako irizpideak jasotzea barne, ezinbestekoa da erabakiaren trazabilitatea eta publikitatearen eta gardentasunaren arloko lege-eskakizunak betetzen direla ziurtatzeko.

Prezioaz bestelako adjudikazio-irizpideak behar bezala konfiguratzeko funtsezko elementua da kontratazio publiko estrategikoagoa, efizienteagoa eta emaitzetara bideratuagoa lortzeko. Gomendio honek irizpide horiek diseinatzeko esparru sistematikoa eskaintzen du, prozeduren segurtasun juridikoa indartuz eta interes publikoarekin eta kontratazio publikoaren arautzen duten printzipioekin bat datorren adjudikazioa bultzatuz.

Halaber, adjudikazio-irizpide kualitatiboen erabilera teknikoki araztua sustatzera bideratuta dago, kontratuak kalitate-prezio erlazio onenaren arabera adjudikatzeko lege-aginduekin bat etorritik. Horren helburua da prezioak de facto faktore nagusi gisa



jarduten duen praktikak zuzentzen laguntzea, baita legeak kalitatearen nagusitasun eraginkorra ezartzen duen eremuetan ere – hala nola prestazio intelektualak edo SPKLren IV. eranskinean jasotako zerbitzuak –.

Ikuspegi sistematiko batetik, araudiak bereizi egiten ditu adjudikazio-irizpidearen izaera (ekonomikoa edo kualitatiboa) eta erabilitako balorazio-teknika (automatikoa edo balio-judizioaren mendekoa), plano kontzeptualki bereiziaz baitira. Kalitatea ez da nahitaez balio-judizioarekin identifikatzen, eta automatikoki objektiba edo ebalua daitezkeen irizpideen bidez ere antola daiteke, baldin eta argi eta garbi definitzen badira aplikatu daitezkeen metrikak eta egiaztapen-mekanismoak, eta irizpide horiek lotura zuzena badute kontratuaren objektuarekin.

Gomendioaren edukiak funtsezko hiru ardatz juridiko azpimarratzen ditu: irizpideak kontratuaren objektuarekin lotzea, formulazio objektibo, argi eta egiaztagarria, eta irizpide horiek hautatzeko eta haztatzeko justifikazio egokia espedientean. Baldintza horiek berriazko babesa dute sektore publikoko kontratuen legerian eta Europako araudian, eta parametro erabakigarriak dira berrikuspen administratibo eta jurisdikzionalako organoek egiten duten kontrolean.

Objektuarekiko lotura eskatzeak esan nahi du adjudikazio-irizpideek kontratuaren objektua den prestazio zehatzari, haren bizi-zikloaren edozein faseri edo egikaritzeko baldintza espezifikoak buruzkoak izan behar dutela, SPKLren 145.5.a eta 145.6 artikuluetan eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 67.3 artikulua. Ondorioz, kanpoan geratzen dira enpresaren ezaugarri orokorrak baloratzera mugatzen diren irizpideak edo kontratu-prestazioarekin zuzenean lotuta ez dauden politika korporatiboak, konfigurazio horiek behin eta berriz jo baitira berdintasun- eta gardentasun-printzipioen aurkakotzat.

Irizpideen formulazioari dagokionez, azpimarratzen da zehatz-mehatz definitu behar direla bai baloratu beharreko edukia bai puntuaziorako aplikatu beharreko arauak, adierazpen orokorrak edo zehaztugabeak saihestuz, kontratazio-organismoari objektibotasun-printzipioarekin bateragarria ez den erabaki-askatasuna eman diezaioketenak, SPKLren 145.5.b eta c artikulua eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 67.4 artikulua. Eskakizun hori bereziki garrantzitsua da irizpide kualitatiboek gutxienezko atalaseak, ondorio baztertzailak edo prozeduraren ondorengo faseetarako sarbidea zehazten dituztenean.

Gomendioak, era berean, agerian uzten du oso garrantzitsua dela espedientean behar bezala arrazoitzea esleipen-irizpideak hautatu eta haztatzea, bai eta formula ekonomikoak diseinatzea ere. Motibazio horrek espezifiko eta nahikoa izan behar du, eta berriaz adierazi behar du zer lotura dagoen hautatutako irizpideen eta kontratuak bete nahi dituen premia zehazten artean, efizientziaren, proportzionaltasunaren eta administrazio onaren printzipioekin bat etorritik (ikus KEA Oren apirilaren 14ko 66/2025 Ebazpena, balorazio-metodoa loteslea izateari buruzkoa, administrazio-klausulen agirietan ezarri denean).

Era berean, sistematikoki jorratzen dira gai hauek: adjudikazio-irizpide gisa hobekuntzak erabiltzea, gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzea, baliokidetasunak onartu behar dituzten ziurtagiriak eta etiketak baloratzeko, eta formula ekonomikoak diseinatzea,



asetasun-atalaseak deitutakoak barne. Kasu guztietan azpimarratzen da irizpidearen adostasun juridikoa haren justifikazio funtzional egokiaren, proportzionaltasunaren eta eskaintzen konparazio objektiboan duen benetako eraginaren mende dagoela.

Azkenik, gomendioak jardunbide egokirako jarraibide batzuk jasotzen ditu, prozeduraren segurtasun juridikoa indartzeko eta auzien arriskua murrizteko, hala nola irizpideak eta azpiirizpideak zehatz definitzea, balorazio- eta haztapen-arauak alde aurretik eta jendaurrean ezartzea, kaudimen-betekizunak eta adjudikazio-irizpideak behar bezala mugatzea, prozeduraren dokumentazio zehatza eta emandako puntuazioen banakako arrazoiak. Jarraibide horiek interes publikoarekin eta kontratazio publikoaren helburu estrategikoekin bat datorren esleipena bermatzen laguntzen dute.

V.- ONDORIOAK.

Hori guztia esanda, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio EAEko kontratazio publikoaren eremuan prezioaz bestelako adjudikazio-irizpideak eta beste irizpide kualitatibo objektibo batzuk sartzeari buruzko Gomendioaren edukiari, ondoren Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onartzeko.